Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

izenpe s.a.
ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA

# CONVENIO MARCO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS Y LA SOCIEDAD "ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICOS, IZENPE, S.A" PARA COLABORAR EN MATERIA DE PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES Y DE DESARROLLO DE FIRMA ELECTRÓNICA

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de Enero de 2006

## REUNIDOS

**De una parte** D. Luis Mª Guinea Ibáñez de Garaio, Director General de "Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE, S.A.", (en adelante IZENPE), en nombre y representación de la misma y en virtud de las facultades que tiene atribuidas.

**Y de la otra** D. Iñaki Vicuña de Nicolás, como Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (en adelante la AVPD), actuando en representación de la misma, en virtud de su nombramiento por Decreto 83/2004 (BOPV nº 90 de 14 de mayo de 2004) acorde con las atribuciones conferidas según artículo 15 de la Ley 2/2004, de 25 de Febrero.

Las partes actúan en nombre y representación de sus entidades respectivas, reconociéndose mutuamente la capacidad jurídica de obrar necesaria para la celebración del presente Convenio de Colaboración y,

## EXPONEN

**I.** Los poderes públicos vascos están interesados en el desarrollo de la sociedad de la información, volcando con carácter general los servicios hacia la red Internet como principal herramienta de modernización y de mejora de la Administración.

**II.** Este nuevo medio exige arbitrar instrumentos que permitan a la ciudadanía relacionarse con la administración y acceder a los servicios que la misma presta con garantías de integridad, confidencialidad, no repudio y autenticidad. La exigencia de seguridad en Internet está íntimamente ligada a cuestiones tan importantes como la privacidad de la información, la intimidad de las personas o la salvaguarda de sus derechos. En este marco, la implantación de la firma electrónica en el ámbito de las administraciones públicas resulta inexcusable.

**III.** Con estas premisas, el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales, a través de sus respectivas sociedades informáticas, han resuelto desarrollar en un marco de colaboración un sistema propio y común de certificación y firma electrónica que garantice la interoperatividad, de forma que los certificados emitidos puedan ser válidos en aplicaciones y procedimientos de las diferentes administraciones. La voluntad de colaboración tuvo su primera expresión en la constitución en junio de 2002 de la sociedad mercantil "Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE participada en su totalidad por las mencionadas sociedades informáticas, como una entidad de certificación cuyo objeto social es el fomento del uso y potenciación del desarrollo del gobierno electrónico sobre redes de telecomunicaciones con las necesarias garantías de seguridad, confidencialidad, autenticidad e irrevocabilidad de las transacciones y, en particular, la prestación, en el ámbito de las instituciones que integran el sector público vasco, de servicios de seguridad, técnicos y administrativos, en las comunicaciones a través de técnicas y medios electrónicos, informáticos y telemáticos.

**IV.** Esta sociedad mercantil, por tanto, constituye el instrumento o la organización común de la que se han dotado las Sociedades Informáticas de las Administraciones Públicas vascas para la gestión de su común interés en el desarrollo de la certificación electrónica. En tal sentido, IZENPE desempeñará la gestión de las actuaciones materiales, técnicas o de servicios que dichas sociedades informáticas

o las Administraciones Públicas de las que dependen le encomienden en virtud de los correspondientes convenios, como es el caso de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi a través del presente Convenio. Entre estas actuaciones cabe destacar por su importancia la emisión de los certificados requeridos para la generación de la firma electrónica.

**V.** La Ley 2/2004, de 25 de Febrero, de ficheros de datos de carácter personal de titularidad pública y de creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, en su artículo 10, punto 1 establece la creación de la AVPD como ente de derecho público, con personalidad jurídica propia y plena capacidad pública y privada, que actúa con plena independencia de las administraciones públicas en el ejercicio de sus funciones; siendo básicamente las siguientes:

- Velar por el cumplimiento de la legislación sobre protección de datos y controlar su aplicación, en especial en lo relativo a los derechos de información, acceso, rectificación, oposición y cancelación de datos.
- Emitir las autorizaciones previstas en las leyes y reglamentos, así como dictar, en su caso las instrucciones precisas para adecuar los tratamientos a los principios de la legislación vigente en materia de protección de datos.
- Atender las peticiones y reclamaciones formuladas por los afectados; además de proporcionar información a las personas acerca de sus derechos en materia de tratamiento de los datos de carácter personal.
- Ejercer la actividad inspectora y en su caso la potestad sancionadora.
- Velar por la publicidad de la existencia de los ficheros de titularidad pública con datos de carácter personal.
- Velar por el cumplimiento de las disposiciones sobre la función estadística pública.
- Atender a las consultas que en materia de protección de datos de carácter personal le formulen las administraciones públicas, instituciones y corporaciones, así como otras personas físicas o jurídicas.

**VI.** Es voluntad de la AVPD poner en marcha iniciativas en las Administraciones públicas para integrar la cultura de la protección de datos en los distintos procesos de modernización administrativa y de desarrollo de la e-administración, en los que tiene una especial importancia el desarrollo de sistemas de acreditación.

**VII.** Es voluntad tanto de la AVPD como de IZENPE establecer los mecanismos y poner en marcha programas conjuntos que faciliten el desarrollo de sus respectivos objetivos.

Conscientes ambas entidades de la necesidad de cooperar en el campo de la protección de datos de carácter personal y en el desarrollo de la firma electrónica, formalizan el presente Convenio Marco que llevan a efecto con arreglo a las siguientes

## ESTIPULACIONES

**PRIMERA. Objeto.**

Es objeto del presente Convenio el establecimiento de un marco de colaboración entre la AVPD e IZENPE en materia de protección de datos de carácter personal y de desarrollo de firma electrónica.

**SEGUNDA. Obligaciones de la AVPD.**

La AVPD realizará las siguientes actuaciones dirigidas a IZENPE:

a) Asesorar en el cumplimiento de la legislación vigente de Protección de Datos de Carácter Personal. El personal de IZENPE podrá realizar todo tipo de consultas, que serán resueltas vía informe por la Agencia Vasca de Protección de Datos, en el ejercicio de sus facultades de interpretación y aplicación la legislación vigente. Este asesoramiento versará sobre las materias siguientes:

1 Cumplimiento de las medidas de seguridad de los ficheros de datos de carácter personal, conforme a lo dispuesto en el Real Decreto 994/ 1999, de 11 de junio, de Medidas de Seguridad.

2 Celebración de los contratos de prestación de servicios de tratamiento de datos de carácter personal, cumpliendo los mismos con los requisitos establecidos en el artículo 12 de la Ley Orgánica 15/ 1999.

3 Cualesquiera otras relacionadas con el cumplimiento de la legislación de datos en materia de protección de datos por parte de las Administraciones públicas en la CAPV.

Este asesoramiento se extenderá a aquellas administraciones o instituciones con las que IZENPE mantenga proyectos de implantación de firma electrónica, con el objeto de clarificar cuantas cuestiones relacionadas con esa implantación tengan relación con la protección de datos personales.

A estos efectos la AVPD trasladará a IZENPE la relación con los miembros de la red de colaboradores en materia de protección de datos, siempre que hayan autorizado expresamente la cesión de sus datos con este fin, para que puedan facilitar el proceso de desarrollo de proyectos de implantación de firma electrónica.

b) Implementar de manera progresiva en sus aplicaciones de gestión el uso de la firma electrónica.

c) Realizará sesiones informativas y formativas en materia de protección de datos personales dirigidas al personal de IZENPE, S.A.

d) Promover en sus relaciones con las administraciones e instituciones del artículo 2.1. de la Ley 30/2002 la utilización progresiva de la firma electrónica.

**TERCERA. Obligaciones de IZENPE**

IZENPE realizará las siguientes actuaciones:

a) Asesorará a la AVPD en materia de firma electrónica y le prestará apoyo y soporte técnico en el desarrollo de diferentes aplicaciones que conlleven su utilización.

b) Realizará sesiones informativas y formativas en materia de firma electrónica dirigidas al personal de la AVPD y, en su caso, a los miembros de la red de colaboradores en materia de protección de datos.

c) Expedirá tarjetas de acreditación al personal de la AVPD y a los miembros de su Consejo Consultivo.

d) Asesorará a la AVPD en el sistema de acreditación ISO 27.001.

**CUARTA. Plan de actuación anual, programas y acciones específicas.**

En el marco del presente convenio marco podrán establecerse programas o acciones específicas relacionas con el ámbito de la protección de datos personales y el desarrollo de la firma electrónica. Asimismo, con carácter anual y previo al comienzo de cada ejercicio, se concretará el plan de actuación anual.

Dichos programas, acciones o planes deberán ser definidos con la suficiente antelación junto con el presupuesto que, en su caso, sea necesario, concretándose los costes económicos así como la participación en los mismos, de común acuerdo por ambas partes.

**QUINTA. Comisión de Seguimiento.**

Se crea una Comisión de Seguimiento del Convenio integrada por cuatro miembros, dos en representación de cada una de las partes firmantes. Por parte de la AVPD participarán en la misma el Director y el Responsable del Registro de Protección de Datos y Nuevas Tecnologías o personas en quienes deleguen. Por parte de IZENPE participarán El Director General y la responsable del Área Jurídica o personas en quienes deleguen.

Dicha Comisión se reunirá siempre que lo requiera cualquiera de las partes y como mínimo una vez por año y tendrá las siguientes funciones:

- Concretar, en su caso, el plan anual de actividades, y los programas y acciones específicos, así como la forma de realización de las actividades y su financiación.
- Realizar un seguimiento del cumplimiento de los planes o programas y, en su caso, del destino de las asignaciones.

- Resolver sobre cualesquiera otras cuestiones relacionadas con la aplicación e interpretación del Convenio.

De cada reunión se levantará un acta por el Secretario de la Comisión que será designado de común acuerdo por ambas partes.

**SEXTA. Duración del Convenio y Causas de resolución.**

El presente Convenio entrará en vigor el día siguiente al de su firma y mantendrá su vigencia de manera indefinida.

En el supuesto de que alguna de las partes decida denunciarlo lo notificará por escrito a la otra, perdiendo su vigencia a los tres meses de dicha notificación.

Son causas de resolución para las partes firmantes del Convenio el incumplimiento de las cláusulas contenidas en el mismo y cualesquiera otras, que derivadas de su naturaleza, sean recogidas en la legislación vigente.

En prueba de conformidad, las partes intervinientes firman el presente Convenio de Colaboración, por duplicado ejemplar en el lugar y la fecha indicados en el encabezamiento, quedando un ejemplar en poder de cada una de las partes.

| | |
|---|---|
| **Iñaki Vicuña de Nicolás** | **D. Luis Mª Guinea Ibáñez de Garaio** |
| Por la Agencia Vasca de Protección de Datos- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa | Por "Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE, S.A." |

# PLAN DE ACTUACIÓN 2006

- Implementar el uso de la firma electrónica en el proceso de declaración de ficheros en la aplicación de Registro de Protección de Datos.

- Realización de sesiones informativas
  - De IZENPE, S.A. dirigida a personal de la AVPD (Enero)
  - De la AVPD dirigida a personal de IZENPE (Febrero)

- Emisión de tarjetas al personal de la AVPD y a los miembros de su Consejo Consultivo.

Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

izenpe s.a.
ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA

# DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ETA "ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICOS, IZENPE, S.A" SOZIETATEAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO HITZARMEN-MARKOA, DATU PERTSONALEN ETA SINADURA ELEKTRONIKOAREN ARLOAN LANKIDETZAN ARITZEKO

Vitoria-Gasteizen, 2006ko urtarrilaren 27an

**BILDUTA**

**Alde batetik,** Luis Mª Guinea Ibáñez de Garaio jauna, "Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE, S.A.", (aurrerantzean, IZENPE) sozietatearen Zuzendari Orokorra, sozietatearen izenean eta ordezkari modura eta esleituta dauzkan ahalmenak betez.

**Bestetik,** Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, Agencia Vasca de Protección de Datos- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (aurrerantzean, DBEB) Zuzendaria, bulego horren ordezkari modura, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 15. artikuluak emandako ahalmenekin bat etorrita, 83/2004 Dekretuaren (EHAA, 90.zkia, 2004ko maiatzaren 14koa) bidezko izendapenari jarraiki.

Bi alderdiek beren erakundeen izenean eta ordez jardungo dute eta elkarri aitortu egiten diote, honako Lankidetzarako Hitzarmen hau egiteko beharrezkoa den jarduteko gaitasun juridikoa,

**ADIERAZI DUTE**

**I.** Euskal botere publikoek informazioaren gizartea garatu nahi dute eta, horretarako, oro har, zerbitzuak Internet sarerantz bideratu, horixe baita administrazioa modernizatzeko eta hobetzeko tresnarik nagusiena.

**II.** Baliabide berri horrek bitartekoak erabakitzea eskatzen du, administraziorekin izandako hartu-emanetan eta administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuetara jotzerakoan, segurtasuna, konfidentzialtasuna, zapuzketa-eza eta egiazkotasuna bermatuta izan ditzaten herritarrek. Interneteko segurtasun-beharra hainbat gai garrantzitsurekin dago zuzenean lotuta: informazioaren pribatutasuna, pertsonen intimitatea edota beren eskubideak babestea. Esparru horretan, nahitaezkoa da administrazio publikoetan sinadura elektronikoa ezartzea.

**III.** Premisa horiekin, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek erabaki egin dute, euren informatika elkarteen bitartez eta elkarlanean arituta, bien arteko operatibitatea bermatuko duen ziurtapeneko eta sinadura elektronikoko sistema propioa eta komuna garatzea, egindako ziurtapenak baliagarriak izan daitezen administrazio desberdinen aplikazio eta prozeduretan. 2002ko ekainean sortu zen "Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE" merkataritza-sozietatea izan zen lankidetzarako zegoen borondatearen lehen adierazpena. IZENPE aipatutako informatika elkarteek erabat partaidetuta dago. Ziurtapenerako erakundea da eta bere helburu soziala da, batetik, telekomunikabide-sareen gainean, agindu elektronikoaren garapena bultzatu eta erabilera sustatzea, transakzioetan beharrezko diren seguritatea, konfidentzialtasuna, egiazkotasuna eta errebokaezintasuna bermatuz; eta, bestetik, euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeetan, teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen bitartez egindako komunikazioetan, seguritate-zerbitzuak, zerbitzu tekniko eta administratiboak ematea.

**IV.** Ziurtapen elektronikoa garatzerako duten interes komuna kudeatzeko, euskal administrazio publikoetako sozietate informatikoek hartu duten bitartekoa edo antolaketa komuna da, beraz, merkataritza-sozietate hori. Ildo horretatik, aipatutako informatika elkarteek edo horiek mende dituzten administrazio publikoek, dagozkien hitzarmenak betez, IZENPEri eskatzen dizkioten jarduera materialak, teknikoak edo zerbitzuak kudeatuko ditu

IZENPEk eta, horren lekuko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak hitzarmen honen bidez eginikoa. Garrantzi handia duelako, jarduera horien artean, nabarmendu egingo dugu sinadura elektronikoa sortzeko eskatuko diren ziurtapenak egitea.

**V.** Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, bere 10. artikuluko 1. puntuan ezartzen duenez, DBEB zuzenbide publikoko ente modura sortu da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatua erabatekoak izango ditu eta administrazio publikoekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak; eginkizun horiek honakoak izango dira batez ere:

- Datuak babesteko legeak bete daitezen zaintzea eta nola aplikatzen diren kontrolatzea, batez ere informaziorako eskubideari eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuak indarrik gabe uzteko eskubideari dagokienez.
- Lege eta erregelamenduetan aurreikusita dauden baimenak ematea eta, beharrezkoa bada, datuen tratamenduak datuak babesteko indarrean dagoen legediko printzipioetara egokitzeko beharrezko jarraibideak ematea.
- Tartean direnen eskariei eta erreklamazioei kasu egitea eta datu pertsonalen tratamendua dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsonei.
- Ikuskaritza-lana betetzea eta, beharrezko bada, zehatzeko ahalmena erabiltzea.
- Datu pertsonalen jabetza publikoko fitxategiak badirela gauza jakinekoa izan dadin zaintzea.
- Funtzio estatistiko publikoari buruzko xedapenak bete daitezen zaintzea.
- Administrazio publikoek, erakundeek eta korporazioek, bai eta beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek ere, izaera pertsonaleko datuen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea.

**VI.** DBEBk administrazio publikoetan ekimenak jarri nahi ditu abian, administrazioa modernizatzeko eta e-administrazioa garatzeko prozeduretan, bereziki, ziurtapen-sistemak garatzea garrantzi berezia duen kasuetan. datuak babestu beharra integratzeko asmoz.

**VII.** DBEBk eta IZENPEk, euren helburuak garatzen laguntzeko, elkarrekin bitartekoak ezarri eta programak abian jarri nahi dituzte.

Bi entitate horiek badakitenez lankidetza beharrezkoa dela izaera pertsonaleko datuen babesean eta sinadura elektronikoaren garapenean, lankidetzarako honako hitzarmen-markoa gauzatu dute ondorengo hizbaketen arabera

## HIZBAKETAK

**LEHENA. Helburua.**

Honako Hitzarmen honen helburua da, izaera pertsonaleko datuen babesean eta sinadura elektronikoaren garapenean, DBEBren eta IZENPEren artean lankidetzarako esparrua ezartzea.

**BIGARRENA. DBEBren betebeharrak.**

IZENPEri bideratutako jarduera hauek egingo ditu DBEBk:

a) Izaera Pertsonaleko Datuen Babesean indarrean dagoen legedia betetzerakoan aholkuak ematea. IZENPEren langileek era guztietako galderak egin ahalko dituzte eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, indarrean dagoen legedia interpretatzeko eta aplikatzeko duen ahalmena erabilita, txosten bidez erantzungo die. Aholku ematea honako gaien ingurukoa izango da:

1 Izaera pertsonaleko datuen fitxategien seguritate-neurriak betetzea, ekainaren 11ko Seguritateko Neurriei buruzko 994/ 1999 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

2 Izaera pertsonaleko datuen tratamendu-zerbitzuak emateko kontratuak egitea, 15/ 1999 Lege Organikoaren 12. artikuluan ezarritako baldintzak betez datuok.

3 Datuen babesean, EAEko administrazio publikoek datuen legedia bete beharrarekin zerikusia duten beste edozein aholku ematea.

IZENPEk sinadura elektronikoa ezartzeko proiektuak dituen administrazio edo erakundeetara zabalduko da aholkularitza hori, datu pertsonalen babesari buruz sortzen zaizkien galderak argitzeko asmoz.

Horretarako, datuen babeseko laguntzaile-sareko kideen zerrenda emango dio DBEBk IZENPEri, betiere, datuok helburu horretarako emateko baimena berariaz eman badute, hartara, sinadura elektronikoa ezartzeko proiektuak garatzen lagun dezaten.

b) Bere kudeaketa-aplikazioetan sinadura elektronikoaren erabilera inplementatzen joatea pixkanaka.

c) IZENPE, S.Aren langileei zuzenduta, datu pertsonalen babesari buruzko informazio eta prestakuntza saioak egingo ditu.

d) 30/2002 Legearen 2.1 artikuluko administrazio eta erakundeekin izango dituen hartu-emanetan, sinadura elektronikoaren erabilera bultzatzea pixkanaka.

**HIRUGARRENA. IZENPEren betebeharrak**

IZENPEk honako jarduerak egingo ditu:

a) Sinadura elektronikoari buruzko aholkuak emango dizkio DBEBri eta sinadura elektronikoaren erabilerak eskatzen dituen laguntza eta euskarri teknikoa ere emango dizkio.

b) DBEBren langileei zuzenduta, sinadura elektronikoari buruzko informazio eta prestakuntza saioak egingo ditu eta, beharrezko bada, baita datuen babeseko laguntzaile-sareko kideei zuzendutakoak ere.

c) DBEBko langileei eta bere Kontseilu Aholku-emaileko kideei egiaztapen-txartelak emango dizkie.

d) ISO 17.001 egiaztapen-sisteman DBEB aholkatuko du.

**LAUGARRENA. Urteko jarduera-plana, programak eta ekintza espezifikoak.**

Honako hitzarmen-marko honen esparruan, datu pertsonalen babesarekin eta sinadura elektronikoaren garapenarekin lotutako programa edo ekintza espezifikoak ezarri ahalko dira. Era berean, urtero, ekitaldi bakoitza hasi orduko, urte horretako jarduera-plana zein izango den zehaztuko da.

Behar besteko aurrerapenaz definitu beharko dira programa, ekintza edo plan horiek bai eta, hala badagokio, horretarako behar izango den aurrekontua ere; era berean, bi aldeek batera erabaki beharko dituzte kostu ekonomikoak eta horietan guztietan egongo den partaidetza.

**BOSGARRENA. Jarraipen-batzordea.**

Hitzarmen honen Jarraipen-batzordea sortu da. Lau kidek osatuko dute, alde sinatzaileen bina ordezkarik. DBEBren aldetik, Zuzendariak eta Datuak Babesteko eta Teknologia Berrien Erregistroko Arduradunak, edota horiek eskuordetzen dituzten pertsonek, hartuko dute parte. IZENPEren kasuan, Zuzendari Orokorrak eta Arlo Juridikoaren arduradunak, edota horiek eskuordetzen dituzten pertsonek, hartuko dute parte.

Aldeetakoren batek hala eskatzen duen bakoitzean bilduko da Batzorde hori, gutxienez urtean behin eta honako funtzio hauek izango ditu:

- Zehaztu egingo ditu. beharrezko bada, urteko jarduera-plana, programak eta ekintza espezifikoak, bai eta jarduerok egiteko modua eta horien finantziazioa ere.
- Planen edo programen betetze-mailaren jarraipena egitea eta, beharrezko bada, baita emandako diru-kopuruaren destinoarena ere.
- Honako hitzarmen hau aplikatzearekin eta interpretatzearekin zerikusi duen beste edozein kontu erabakiko du.

Bi aldeek batera izendatuko dute Batzordeko Idazkaria eta berak egingo du bilera bakoitzaren akta.

**SEIGARRENA. Hitzarmenaren iraupena eta Suntsiarazpen-arrazoiak.**

Hitzarmen hau izenpetu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean eta indarraldia mugagabe mantenduko du.

Aldeetakoren batek salatzea erabakitzen badu, idatziz jakinarazi beharko dio beste aldeari eta jakinarazpen hori egiten denetik hiru hilabetera galduko du indarraldia.

Hitzarmen hau sinatuko duten aldeentzat suntsiarazpen-arrazoiak izango dira, ez betetzea ez hitzarmenean jasotako klausulak ez eta, bere izaeratik eratorrita, indarrean dagoen legedian jasotzen diren beste edozein klausula ere.

Adostasunaren seinale, parte hartu dutek aldeek Lankidetzarako Hitzarmen honen bi ale izenpetu dituzte, goiburuan adierazitako toki eta egunean. Bi aldeak ale banarekin geratu dira.

| | |
|---|---|
| **Iñaki Vicuña de Nicolás jauna** | **Luis Mª Guinea Ibáñez de Garaio jauna** |
| Agencia Vasca de Protección de Datos- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aldetik | "Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE, S.A."ren aldetik |

Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

izenpe s.a.
ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA

# JARDUERA-PLANA 2006

- Datuak Babesteko Erregistroaren aplikazioan fitxategiak aitortzeko prozeduran, sinadura elektronikoaren erabilera inplementatzea.

- Informazio saioak egitea:
  - IZENPE, S.Ak, DBEBren langileei zuzenduta (urtarrila)
  - DBEBk, IZENPEko langileei zuzenduta (otsaila)

- DBEBren langileentzako eta Kontseilu Aholku-emailearen kideentzako txartelak egitea.